

60E/2023 Ebazpena, abuztuaren 9koa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emana, “Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeendako laguntzak 2023” deialdiaren lehen ordainketa onesten duena.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-1407-2022-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tfnoa.: 848 426054
Helbidea: Paulino Caballero 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeendako laguntzak.

Otsailaren 16ko 10E/2023 Foru Aginduaren bidez, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariak irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia eta haren oinarriak onetsi zituen.

Ondoren, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak ekainaren 7an emandako 39E/2023 ebazpenaren bidez dirulaguntzen deialdia ebatzi zen.

Bestalde, deialdia arautzen zuen 10E/2023 Foru Aginduaren oinarrietan ezarria dagoen bezala, dirulaguntza bi epetan ordainduko da. Gainera, 39E/2023 ebazpenean adierazi zen lehenengo ordainketa partziala jasotzeko, borondatezkoa eta dirulaguntzaren % 50era artekoa, elkarte onuradunek aurkeztu behar zutela beharrezkoa den dokumentazioa, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta ondorengo 15 egun naturaleko epean.

Euskararen Sustapenaren eta Planifikazioaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena eman du behar den dokumentazioa eta gastuen frogagiriak aurkeztu dituzten bederatzi elkarteei lehen ordainketa egiteko.

Hala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan, lehen ordainketaren barnean, ageri diren zenbatekoak ordaintzea:

izena	lehen ordainketa
LAU BIDE ELKARTEA	1.591,75
SORTZEN	4.534,77
ZALDIKO MALDIKO	3.073,90
Karrikiri	17.499,94



TOPAGUNEA	44.586,81
IDAZLEEKIN SOLASEAN	1.126,08
IKASTOLEN ELKARTEA	3.658,33
LABA	17.494,18
AIZPEA	2.991,80

2.Ebazpen hau jakinaraztea goiko zerrendako eskatzaile bakoitzari.

3.Ebazpen hau igortzea ondorengoei: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Herritarrekiko Harremanetako Departamentuan duen Kontu hartzailetza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Administrazio eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kudeatzailera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Programen Bulegora, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

4.Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2023ko abuztuaren 9an.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Mikel Arregi Perez

